

## BALIO PROPOSAMENA

Gure ustez gaur egun mahaia garbitzea platerak garbitzea eta beste lan batzuk asko kostatzen den gauza bat da, hau da, inork egin nahi ez duen lanak dira beraz horretarako mahai autogarbitzailea bururatu zaigu. Produktu honekin erosotasuna bilatuko dugu zeren ez du inork trapu bat hartu beharko mahaia garbitzeko baizik eta botoi bati eman eta mahaia bakarrik garbituko da. Erosotasunarekin batera azkartasuna eta praktikotasuna eskeini egiten ditugu. Beste modu batera esanda mahaia garbitzeko galtzen dugun denbora beste zerbaitetan erabili ahal izango dugu. Adibidez ostatu batean mahaia garbitu bitartean beste bezeroekin egon zaitezke beraz denbora irabazten dugu produktu honekin.



Gaur egun merkatuan ez dagoen produktu bat da beraz nahiko interesgarria iruditzen zaigu. Ostatu batentzat interesgarria izan daiteke denbora irabaz dezakegulako baina baita ere etxe batean bizi den pertsona batentzat zeren agian ez dauka denbora asko eta mahai honekin bere mahaia garbia eta txukun egotea lortuko du eta gainera denbora oso gutxian esfortzurik egin gabe.

Merkatuan askotan ikusten ditugu garbitzeko produktu berriak gero eta gehiago baina hala ere denekin mahaia edo dena delakoa garbitu egin behar izaten da, gure produktuarekin ordez botoi bati soilik sakatuta mahai garbia lortuko dugu eta gainera zikinkeria zuzenean eta bakarrik zakarrontzian egonen da. Merkatuan ikusten dena behin erabiltzeko papera ikusten da gehienbat ostatuetan baina paper honek

kutsadura bat suposatzen du eta hau ez da ona ingurumenarentzat beraz gure produktuarekin hau ekidin nahi dugu.



Gure produktua merkatuan ez dagoen produktu bat da, eta honen beharra ikusten dugu lana asko errazten digulako, alde batetik, garbitzailearen esfortzua murriztu egiten da eta esfortzu horietan sor daitezkeen lesioak ekidin daitezke produktu honekin.



Ekonomikoki errentagarria da lan asko aurrezten duelako eta bitartean beste lan ezberdinak egin daitezkelako eta oso erraza da erabiltzeko botoi bat soilik sakatu behar delako.

Gure produkturik gabe emakumeak mahaia garbitzea ohikoena izaten da eta horregatik gizartean gatazkak sortu ohi dira. Gure produktua erosiz gero, ez emakumeak eta gizonak ezta ere ez dute garbitu beharko, horrela gatazkak ekidin daitezke. Askotan langileak beranduago ateratzen dira lanetik garbitzen geratu behar izaten direlako, produktu honekin puntualtasuna eta aisialdiko denbora gehiago lortu dezakegu.